

**4º**  
CONCURSO

PROGRAMA DE SENSIBILIZACIÓN EDUCATIVA

# HAZLO VERDE

MISIÓN SOMOSLARAÍZ

#PLASTICFREE



**UNITATE 1**

ESPARRU PEDAGOGIKOA ETA  
#PLASTICFREE MISIOAREN AURKEZPENA

**LEROYMERLIN**  
*Da vida a tus ideas*

DEMOS VIDA A UN  
HÁBITAT MEJOR

# AURKIBIDEA

1. ODS-GJH-EN TESTUINGURUA

2. #PLASTICFREE MISIOA ETA IKASLERIAREN AHALDUNTZEA

3. LOTURA KURRIKULARRA

4. ZEIN DA GURE MISIOA? ZER AURKEZTEN DUGU?

5. AURRETIAZKO GOGOETA DINAMIKAK



# 1. ODS-GJH-EN TESTUINGURUA.

2000. urtean, orduko ONU-ko 189 Estatu Kideetako Ordezkariek bildu egin ziren mende aldeketa horretan iraunkorrak ziren arazo ezberdinak konpontzeko mundu mailako aliantza bat eginez. Bilera honetatik **Milurteko Aldarrikapena** atera zen, **Garapen Jasangarriaren Helburuen** aurrekoa, zeinetan harpidetutako herrialdeak, besteak beste, gosea eta pobrezia gainditzeko, ikaskuntzaren unibertsaltasuna lortzeko, berdintasuna sustatzeko eta ingurumenaren jasangarritasuna bermatzeko jarduerak garatzera konprometituko ziren. Guztira 8 helburu izan ziren eta **Milurteko Helburuak** izendatu ziren.

2015eko uztailean, ONU-ko Herrialde Kideek Munduko Helburu hauen inguruko hitzarmen berri bat adostu zuten, lortu beharreko Helburuak 17ra hedatuz. **Garapen Jasangarriko Munduko Helburuak** bezala izendatu ziren, ohiko bere izendapena **ODS-GJH** izanik.

Hitzarmen horren helburua esfortzuak konprometitzea zen, mundu osoko pertsonak, betiere planeta kaltetu gabe, hobeto bizitzea bermatzeko. Estatuak hurrengo 15 urtetan, 2016tik 2030 arte, helburu horiek lortzeko lanean jardungo ziren.

ODS-GJH izendatuak, egungo eta etorkizuneko munduan gainditu behar diren erronka nagusietarako konponbide zehatzak ekartzeko asmoa dute, planetaren baliabideak iraunarazi eta planetan bizi garen guztion bizi-kalitatea hobetuko duten gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan egonkortasuna bermatzeko helburuarekin. Orainaldia eta etorkizuna, egungo eta etorkizuneko belaunaldiak helburu komun baten izenean bateratuak.

Markatutako 17 helburuetatik, erdia baino gehiago jasangarritasuna eta ingurumena arloetan daude: ura, energia, bizigarritasuna, ekoizpena eta kontsumoa, itsasoko bizitza eta lurreko ekosistemak, klima aldaketa



Gogoratu eskuragarri dituzuela, **7 talde dinamika** gogoetara eta ekintzara eramaten gaituztenak, ingurumen ODS-GJH bakoitzeko dinamika bat.

## 2. #PLASTICFREE MISIOA ETA IKASLERIAREN AHALDUNTZEA

Ingurumen jarduerak ikasgeletan garatzeak haurrak horietatik kanpo ahaldundu dituzte.

**Aldaketa klimatikoaren inguruko Nazio Batuen Esparruko Hitzarmenaren** 6. artikuluan adierazten da “Hezkuntza, prestakuntza eta sentsibilizazioa” bere txostenean derrigorrezkoa dela klima aldaketa eta bere eraginen inguruko prestakuntza eta sentsibilizazio programak elaboratzea eta aplikatzea. Eskola programa eta jarduera horiek erronka haue-  
tarako erantzunak ematea, **gizarte osoaren aldaketa eta kontzientziazioa bermatzeko** abiapuntua esparru lokala izanik.




**Ahaldundu.** Bere esanahiari erreparatzen badiogu, honen bidez pertsona batek beregan konfiantza eta segurtasuna garatzea bilatzen da, bere auto-estimua, bere indarra hedatzeko, bere gaitasunak hobetzeko eta bere potentziala bultzatzeko baliabideak direla medio eta hori guztia bere egoera edota bere ingurunearen egoera hobetu ahal izateko helburuarekin.

Helburu nagusia hurrei konpetentziak ematea da, euren etorkizun hurbilean bere ekintzen eta erabakien garrantzia baloratu dezaten, hiritar arduratsuen modura moldatu ahal izan daitezen, izan ere, egungo ikasleak biharko hiritarrak dira.



### 3. LOTURA KURRIKULARRA

| IRAKASGAIAK                                   | EDUKI BLOKEAK                                    | DESKRIBAPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|-----------------------------------------------|--------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| BIOLOGIA ETA GEOLOGIA                         | 6. BLOKEA. EKOSISTEMAK                           | Ekosistemetako desorekak eragiten dituzten faktoreak. Ingurumenaren kontserbazioa errazten duten ekintzak. Atmosferaren kutsadura. Berotegi efektua.                                                                                                                                                                |
| TEKNOLOGIA                                    | 1. BLOKEA. ARAZO TEKNOLOGIKOEN EBAZPEN PROZESUA. | Produktu teknologiko bat sortzeko beharrezko etapak identifikatu bere sorreratik merkatu-ratzen den arte, horietako bakoitza deskribatuz, gizartean duen bere eragina ikertuz eta hobekuntzak proposatuz, bai bere erabilgarritasunaren ikuspuntutik eta bai gizarte arloan izan dezakeen inpaktua kontuan hartuta. |
|                                               | 6. BLOKEA. TEKNOLOGIA ETA GIZARTEA.              | Garapen jasangarria bultzatzen duten ohituren lorpena.                                                                                                                                                                                                                                                              |
| PLASTIKA ETA IKUSMEN HEZIKETA                 | 1. BLOKEA. ADIERAZPEN PLASTIKOA.                 | Diseinuaren hizkuntzaren egitura eratzen duten elementu ezberdinak identifikatzea.                                                                                                                                                                                                                                  |
|                                               | 5. BLOKEA. DISEINUAREN UNDAMENTOS DEL DISEÑO.    | Sormen konposizioak egin, objektuaren diseinuaren hizkuntzaren ezaugarri teknikoak eta adierazpen arlokoak agerian jartzen dituztenak, horiek eremu ezberdinekin egokituz, ideia originalen sorrerarako talde-lana baloratuz.                                                                                       |
| ENPRESA ETA EKINTZAILTZA JARDUEREN HASTAPENAK | 2. BLOKEA. ENPRESA PROIEKTUA.                    | Sortu ikasgelan enpresaren proiektua, barne ezaugarriak eta ingurunearekin dituen harremanak deskribatuz, negozio estrategian jasangarritasunak duen garrantzia baloratuz eta baita bere funtzio soziala ere.                                                                                                       |



### 3. LOTURA KURRIKULARRA

| IRAKASGAIK                                | EDUKI BLOKEAK                                                     | DESKRIBAPENA                                                                                                                                                                                                                                |
|-------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| LANBIDE JARDUERARI APLIKATUTAKO ZIENTZIAK | 2. BLOKEA. ZIENTZIAREN APLIKAZIOAK INGURUMENAREN KONTSERBAZIOAN.  | Kutsadura motak. Garapen jasangarria                                                                                                                                                                                                        |
|                                           | 3. BLOKEA. IKER-KETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA (I+D+I)            | I+D+i kontzeptua. Gizarterako garrantzia. Berrikuntza.                                                                                                                                                                                      |
| EKONOMIA                                  | 6. BLOKEA. NAZIOARTEKO EKONOMIA                                   | Ingurumenaren kontsiderazio ekonomikoa: jasangarritasuna<br>Lurrak ematen dituen baliabideen gestio jasangarri baten beharrari buruz argudiatu.                                                                                             |
| KULTURA ZIENTIFIKOA                       | 3. BLOKEA. AURRE-RAPEN TEKNOLOGIKOAK ETA BERE INGURUMEN INPAKTUA. | Gizarte inplikazio larriak baloratu, bai gaur egungoak eta bai etorkizunekoak, Baliabide naturalen gehiegizko ustiapena, kutsadura, desertifikazioa, bioaniztasunaren galera eta hondakinen tratamendua.                                    |
|                                           | 5. BLOKEA. MATERIAL BERRIAK                                       | Azterketa errazak egitea eta materialekin lotutako alderdien inguruko ondorioak hala nola gizakien garapenarekiko horien eragina aurkeztea.                                                                                                 |
| BIOLOGIA ETA GEOLOGIA                     | 3. BLOKEA. ECOLOGIA ETA INGURUMENA.                               | Giza jarduera eta ingurumena. Baliabide naturalak eta bere motak. Energiaren giza kontsumoarekin lotutako ingurumen ondorioak. Hondakinak eta bere gestioa. Ingurumenaren kutsadura eta arazketa maila ezagutzeko teknika errazen ezagutza. |

## 4. ZEIN DA GURE MISIOA? NOLAKOA DA AURKEZTU BEHAR DUGUN LANA?

Talde-ikasgela bezala, **material birziklagarri, ekologiko eta jasagarriekin eginiko produktuaren prototipo bat** aurkeztuko duzue:

- Plastikoen ekoizpena minimizatzen lagunduko duena.
- Ingurumen inpaktu eta aztarna ahalik eta urriena izango duena.
- 3R-ak kontuan hartuko dituena: murriztu, birziklatu, berrerabili.
- Kontsumo bideragarriaren aukera bat dena.

Produktu berritzaile hau errealitatea bihurtu ahal izango da, Leroy Merlin dendetan aurkitu ahal izanik.

“Diseinuari aplikatutako prozesu sortzailea” izendatutako 2. Unitate Didaktikoan, diseinatu nahi duzuen produktuaren gogoetan jarraitu beharreko urratsak hala nola produktu batean aplikatzen diren proiektuaren metodologia urratsak aurkituko dituzue.

Zuen partaidetza lana garatu ahal izateko, **bi lan metodologia** eskaintzen dizkizuegu, **Adimen Anitzetan** eta **Ikaskuntza Kolaboratzailean** oinarritzen direnak.



### A Metodologia:

Kontzeptuak barneratu direnean, zure ikasleak lantaldeen arabera antolatu, produktu bat osatzen duten alderdiak kontuan hartuta:

- Erabilitako materialak: birziklatuak, ekologikoak, berritzaileak.
- Ingurumen inpaktua eta aztarna.
- Ekoizpen kostuak eta logistika.
- Banaketa saltokian: paketatzea, biltegiatzea.

Talde bakoitzak bere planteamenduak bildu dituenean, bateratze-lan bat egin ezazue, horrela hautatutako produktua lan-talde bakoitzaren ekarpen onenen emaitza izatea bilatuz.

### B Metodologia:

Zure ikasleak diseinu talde osatuen arabera antolatu itzazu. Produktuaren diseinu batean sartzen diren faktore guztiak kontuan hartu beharko dira:

- Erabilitako materialak: birziklatuak, ekologikoak, berritzaileak.
- Ingurumen inpaktua eta aztarna.
- Kostuak eta ekoizpen logistika.
- Banaketa saltokian: paketatzea, biltegiatzea.

Talde bakoitzak bere produktu diseinua aurkeztu beharko du, klaseko gainerakoen aurrean bere proposamena aurkeztuz. Bateratze-lan honen ondoren, zuen aurkezpenerako hautatutako produktua hori al den edota proposamen ezberdinen ideia onenak nahastuz diseinu berri bat egitea nahiago al duzuen erabaki ahal izango duzue.

## 5. AURRETIAZKO GOGOETA DINAMIKAK

4. edizio honetako misioan sartu zaitezten modu egoki bat, plastikoak bezalako materialen ekoizpen prozesuek gure egunerokotasunean eragiten duten inpaktua barneratzea da, zuen burua aldaketa agente bihurtuz, zuen kideen eta ingurunearen aurrean jarrera aldaketaren garrantzia bistaratzea eta ingurumenaren kontserbazioa bultzatzea zainduz.

Inspirazio modura baliagarriak gertatu ahal zaizkizuen dinamika ezberdinak uzten dizkizuegu, **Baina ziur gaude zuen ikasleek aurrea hartuko dutela bere ekimen propioak pentsatuz!**

No olvidéis subir vuestras fotos, retos y logros en vuestras RRSS con el hashtag **#PlasticFree y #HazloVerde**

O al correo [info@hazloverde.es](mailto:info@hazloverde.es) para que las compartamos en el Blog del concurso

### CHALLENGE #PLASTICFREE

INFORMATU EGITEN GARA ETA  
GAINERAKOAK INFORMATZEN  
DITUGU

JARRERA ALDAKETA BULTZATZEN  
DUEN EKINTZA BAT EGITEN  
DUGU

Bilatu gaur egun, bere jasangarritasunagatik, bere ingurumen aztarna minimoagatik, eta abarregatik plastikoen ordezkio modura aurkezten diren material eta produktu berriak. Mural bat prestatu aurkitutako produktuen irudiekin eta ezaugarrieekin, hauen eta ordeztzen dituzten haien artean konparazio bat eginez.

Bilatu ekodiseinuaren kontzeptuaren eraginpean sortutako objektuen irudiak, eta argazkiekin osatutako mural bat prestatu, bertan ohiko objektua diseinatutako objektu berriei konparatuz. Eztabaidatu ikasgelan materialen, bere fabrikaziorako erabilitako gastu energetikoaren eta bien ingurumen aztarnaren inguruan.

Gogoeta egin jangelan, ikasgelen mantenuan, eskola materialen gastuan, eta abarren esku hartzen duten prozesu ekonomikoak zeintzuk diren ezagutzeko eta ekonomia zirkular bat bermatzeko aukera bideragarriak bilatu.

**SORTU ZUEN CHALLENGE PLASTICFREE PROPIOA!**

Gogoratu eskuragarri dituzuela,  
ODS-GJH-ak lantzeko talde dinamika pila bat  
Ez ahaztu aurreko ediziotako material didaktikoa kontsultatzea!

